



## ELKARRIZKETA

Karmele Soler:

*«Asko kostatu zitzaidan  
nire burua Zinemira  
saria jasotzen ikustea»*

## ERREPORTAJEA

Euskal Zuzenbide  
Zibil berria:  
berdintasuna  
irizpide

## EZTABAIDA

Prosaren gaineko gogoeta  
beti zahar, beti berria

INFORMAZIO ETA  
KOMUNIKAZIOAREN  
TEKNOLOGIAK

Zibersegurtasun  
ezaren arriskuak

STEFAN SCHUSTER

## BA AL ZENEKIEN?

Euskarazko testamentu bat  
Arabako Durruma herrian

ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE  
PEDRO URIBARRENA

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo delEUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

# Euskal Zuzenbide Zibil berria: Berdintasuna irizpide

MAITE ORUE  
KAZETARIA

**E**kainaren 25ean, Eusko Legebiltzarrak Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legeari oniritzia eman ostean, urriaren 3tik indarrean dago Euskal Zuzenbide Zibil berria. Sektoreko profesionalek esku zabalik hartu dute lege-testua, ordura arte zegoena eguneratzeko beharrezana egon bazegoela irizten baitzuten. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, esan du legeak helburu bikoitza betetzen duela: batetik, Euskal Zuzenbide tradizionala «eguneratzea eta modernizatzea», eta, bestetik, «uztailaren 1eko 3/1992 Legetik eta azaroaren 26ko 3/1999 Legetik eratorritako ondarea bizirik mantentzea».

Esan beharrik ez dago legea onartu aurreko prozesuak luze jo duela, hainbat sektore juridikok hamarkadetan zehar egindako lanaren fruitua baita. Unibertsitateak, notarioek, erregistratzaileek, abokatuak, Zuzenbidearen Euskal Akademiak... ereindakoaren uzta da Euskal Zuzenbide Zibil berria, eta, Eusko Legebiltzarrak nabarmendu legez, herritarrak ditu hartzaile nagusi, «askatasun zibila erabiliz aukera-sorta handi bat edukiko baitute eskuetan zuzenbide pribatuko beren harremanak antolatzeko».

1999an aldaketa batzuk egin zitzaizkion, eta Gipuzkoara hedatu zen, baina, berez, 1992koa izan zen euskal legegileek osatutako Euskal Foru Zuzenbide Zibilaren lehen testu idatzia, eta, beraz, 23 urtez egon da indarrean. Eusko Legebiltzarreko legelaria izanik, Josu Oses Abandok ondo baino hobeto ezagutzen ditu lege zaharra eta berria, baita azken hori egin aurreko prozesua ere. Haren esanetan, 1992ko eta 1999ko legeak «onetsi ziren une beretik ikusi ahal ziren haien gabeziak». Hori dela eta, haren iritziz, «komenigarria ez ezik, erabat beharrezkoa» ere bazen lege berri bat onestea; «Euskal Zuzenbide Zibilaren fosilizazioa eta petrifikazioa saihesteko», hain zuzen ere.

Euskal Zuzenbide Zibil Berria laburbiltzeko erabil daitekeen kontzeptu bat

*berdintasuna* da, aurreko legeak jasotzen zituen arauak ezberdinak baitziren lurralde historiko bakoitzerako. Lege-testu berriak, ordea, ezberdintasunak gainditu eta berdintzera egiten du, Euskal Autonomia Erkidego osorako arauak indarrean jarritik, eta herritar guztiei aukera, eskubide eta betebeharrak berdina aitortuz. Hori bai, Euskal Zuzenbide Zibil berriak errespetatu egiten ditu sakon errotuta dauden tokiko lege eta ohiturak: testamentua egiteko Aiaraldean dagoen askatasuna; tronkalitatea; ezkontzako ondasunen araubidea ezkongaiak Bizkaiko Lur lauko, Aramaioko edo Laudioko bizilagunak direnean; edota Gipuzkoako baserriaren oinordetza. «Helburua izan da, beti, bizirik mantentzea eta aprobeztatzea tradiziozko eta ohiturazko zuzenbidearen legatua, baina, aldi berean, begirada jartzea gaurko munduan eta egungo Euskal Herrian, non merkataritzak eta industriak pisu handia daukaten eta zeina ezin den identifikatu duela mende batzuetako landa-gizartearekin, zuzenbide honen jatorrizko formulazioak erantzuten zion gizarte harekin».

## Euskal auzotasun zibila

Lege berriaren berrikuntzarik nabarmena euskal auzotasun zibilaren arauketa da. Oinordekotzarekin lotutako gaiak irizpide ezberdinen arabera ebatzi



izan dira urrira bitartean, herrialdearen arabera. Alabaina, herritar guzciei euskal auzotasun zibila aitortuz, Araba, Bizkai eta Gipuzkoaren artean egondako aldeak txikitzen ditu lege berriak. «Orain arte ez zegoen tokiko auzotasuna, eta horrek eragozten zuen, berbarako, izatezko bikoteen ondorioak arautzeko euskal auzotasuna ardatz moduan hartzea, halakorik ez zegoelako. Hainbatez, auzotasun administratiboan babestu da izatezko bikoteen araubidea. Premiazkoa zen, hortaz, auzotasun erkide bat izatea Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiontzat».

### Senipartearen murrizketa

Beste alde batetik, senipartea edo derri-gorrez sendiko ondorengoei testamentuan utzi beharrekoa murriztu egiten du Euskal Zuzenbide Zibil berriak, eta, hortaz, ondasunak banatzerakoan askatasun handiagoa ematen du. Lege berriak ondarearen heren batera mugatu du senipartea, eta beste bi herenak askatasunez erabiltzeko aukera egongo da. Horrez gain, derrigorrez ondorengoei utzi beharrekoan ez dira ezinbestean ondorengo guztiak kontuan hartu behar, eta, ondorioz, posible izango da baten bat testamentutik kanpo uztea. Halaber, urrira arte ez bezala, aurrekoei zuzendutako seniparterik ez du jasotzen lege berriak.

### Tronkalitatea, Aiaraldeako berezitasuna eta Gipuzkoako baserriak

Aukeran, baina tronkalitatea bere hartan mantentzen du urrian indarrean jarritako legeak. Beraz, Foru Zuzenbide Zibila ezartzen den Bizkaiko tokietako bizilagunak behartuta egongo dira herentzian jasotako ondasun higiezinak ondorengoei uztera; betiere, ezkontzerakoan erregimen hori hautatuz gero, zentzu horretan legea ez baita lehen bezain zurruna. Gipuzkoako baserriak herentzian uzteko ohiturari ere eusten dio lege-testuak, eta, horrenbestez, aukera egongo da ondorengo bakar bati emateko. Aiaraldean, azkenik, askatasun osoa izango dute oinordekoak erabakitzerakoan.

### Ahalordeak eta izatezko bikoteak

Bestetik, ondasunak zelan banatu erabakitzeko Bizkaian soilik erabil zitekeen ahalordearen figura Arabara eta Gipuzkoara zabaldu du Euskal Zuzenbide Zibil berriak. Horri esker, bi herrialde horietako bizilagunak ere izendatu ahaliko dute pertsona zehatz bat ondasunak kudeatzeko. Bestalde, ezkontideen eskubideak babestera ere egiten du legeak, bikotekidea hiltzerakoan familiaren etxebizitzan gelditzeko eskubidea aitortuz. Halaber, izatezko bikoteei ezkonduakoei aitortzen zaizkien eskubide eta betebeharrak ematen dizkie 5/2015 Legeak.

### Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea

Horrez guztiaz gain, aipatu beharra dago legeak ez duela aterik ixten, eta horretara dator berarekin batera dakarren Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen sorrera. Kontsulta-organoa izango da, eta haren helburua izango da Euskal Zuzenbide Zibilaren garapena sustatzea. «Horretarako, honako hauek egingo ditu: ikertu, ebaluatu, proposamenak eztabaidatu eta aholkularitza egin Eusko Legebiltzararentzat eta Eusko Jaurlaritzarentzat, baita arlo horretan legeberrikuntzak eta aldaketak proposatu ere».

Bistan da aldaketak ez direla gutxi, eta, zentzu horretan, pozik agertu da Eusko Jaurlaritza, uste baitu berritasun esanguratsu eta egokiak daudela; «hala nola, euskal auzotasun zibila aitortzea, arautegia izatezko bikoteei zabaltzea edo Zuzenbide Zibileko Euskal Batzorde bat sortzea». Osesez dienez, baina, «lege honek izate-arrazoia edukiko du, soilik, baldin eta euskal herritarrek ezagutzen, bere gain hartzen eta erabiltzen badute». Izan ere, haren hitzetan, «denok jabetu behar dugu urriaren 3tik aurrera aukerasorta handiagoa daukagula gure esku: Euskal Zuzenbide Zibilaren aukera berriak, Kode Zibil espainiarraren aukera tradizionalak, eta, azkenik, eremu batzuetako berezitasunak, halakorik dagoen eremuetan».

## ELKARRIZKETA



### JOSU OSES ABANDO

Legelaria - Legebiltzar kudeaketako zuzendaria

**Euskal Zuzenbide Zibil berria oraintsu sartu da indarrean. Baina noiz eta zergatik hasi ziren ekainean onartutako legea egiteko Iehen pausoak?**

Orain arte 1992ko eta 1999ko legeak egon dira indarrean, baina onetsi ziren une beretik ikusi ziren lege horien gabeziak, alegia, mantentzen zutela lurraldekako sakabanaketa normatiboa («artxipelago juridiko forala» deitua) eta mugatzen zirela ordura arteko instituzioen bilketa hutsa egitera.

Beste autonomia-erkidego batzuen kontrara, EAE egoera atzeratuago batetik abiatzen zen, hedapen desberdineko ordenamenduen justaposizioan oinarritutako egoeratik, alegia.

Jardunaldi batzuk antolatu ziren eta ekarpenak aurkeztu gaiaren inguruan, baina Eusko Legebiltzarrak ez zuen bere gain hartzen bere rol instituzionala, eta arau historikoen jatorri forala gailentzen zen. Gauzak horrela, Legebiltzarrak ponentzia bat eratu zuen 2006an, eta, porrot egin zuten aurreko saioen ondoren, eragile juridiko inplikatu guztiak deitu zituen hartara, beren ikuspuntuak azal zituzaten; nagusiki, unibertsitateak,

abokatuak, notarioak eta erregistratzaileak. Legebiltzarraren desegiteak moztu egin zuen material hura lege-testu bihurtu ahal izatea.

**Ondoren, zeintzuk izan ziren emandako urratsak?**

2013an, ponentzia bat antolatu zen «Euskal Zuzenbide Zibila eguneratzeko». Agerraldi-sorta bat egin ostean, 2013ko azaroaren 28ko osoko bilkuran aho batez onetsi zen ebazpen bat, non Legebiltzarrak konprometitu zen lege-proposamen bat prestatzera, euskal auzotasun zibilean oinarrituko zena eta EAEko lurralde osoan aplikagarria izango zena. Ebazpen hori, aho batez onetsia, ibilbide-orri politiko bihurtu zen, aurten 5/2015 Legea bilakatu dena iritsi ahal izateko.

2014ko urtarrilean eta uztailen, agerraldi-egileei eskatu zitzaizkien testu eta ekimen konkretuak egin zitzaizkizkien, eta testu haiek urtebetean batera aztertuak izan ondoren, aurtengo martxoan erregistro parlamentarioan aurkeztu zen Euzko Abertzaleek, Euskal Sozialistek eta Euskal Talde Popularrak sinatutako lege-proposamena. Tramitazio parlamentarioa oso azkarra izan zen, jada leunduta zeudelako aurretiko desadostasun-puntu gehienak, eta ekainaren 25ean Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko 5/2015 Legea onetsi zen, gehiengo oso handi batez.

**Prozesua luzea izan da. Zer izan da zailena?**

Prozesu luzea izan da, bai, baina merezi izan du, eman duen fruituagatik. Beharbada, unerik zailenak izan ziren bazurdienean berriro ere galgatuta geldituko zela testu bateratu bat egiteko asmoa. Hori dela eta, eskertu beharra dago aipatutako sektore profesionalen, eta, noski, ordezkari parlamentarioen jarrera esku-zabala.

**Labur-labur esanda, zeintzuk dira lege berriak dakartzan aldaketak?**

Abiapuntua gehiengoak zuen konbentzimendu bat zen; alegia, Euskal Zuzenbide Zibila bi printzipio oso modernotan oinarritzen dela: batetik, askatasun zibila, herritarrek tresna malgu eta ezagun batzuk eduki zituzaten eskuetan harreman juridiko pribatuak antolatzeko (norbanakoaren eremu pertsonal eta familiarrekoak) eta, bestetik, jabetzaren ikuskera soziala.

Nabarmendu behar dut kontua ez zela euskal herritarrei arrotzak zaizkien artifizio juridiko batzuk asmatzea, baizik eta lehendik zeudenak eraberritzea. Ildo horretatik, legea «harago» ere joan zitekeen, baina euskal legegileek, gure aurretikoek oso bere zuten jarrera errealista bat harturik, erabaki zuten oreka gordetzea errealismo juridikoaren eta ausardia juridikoaren artean. Hautatu behar banitu lege osoaren bi gako nagusi, euskal auzotasun zibilaren finkapena eta oinordetza-erregimenaren eguneraketa aukeratuko nituzke.

**Aletu dezagun lege-testu berriaren edukia. Euskal auzotasun zibila aipatu duzu. Zertan datza?**

Orain arte, azaldu dudana eremu-mosaiko horretan aplikatzen zen Zuzenbide Forala. Gainerako lurraldean, ordea, zabaleraz eta populazioz handiengan, Kode Zibila aplikatzen zen. Horrek eragin zuen ezen 1992tik aurrerako legeek (gogoratu dezagun lege horrek mantendu egin zuela eremu-sakabanaketa) auzotasun administratiboa hartu behar izan baitzuten aplikazio-eremu pertsonal modura, baina kontzeptu hori –baliagarria dena Administrazioarekiko harremanetarako, boto-eskubiderako, eta abar– ez zen baliagarria zuzenbide pribatuaren ikuspunturako (adibidez, Izatezko Bikoitei buruzko 2/2003 Legea).

Euskal auzotasun zibila euskal herritar guztiarentzat izendatzaile komun txikiena da, eta horrek dakarrena da Foru Zuzenbide Zibiletik Euskal Zuzenbide

Zibilera jauzi egitea, galarazi gabe auzotasun lokala mantentzea; adibidez, testamentua egiteko askatasuna (Aiar) edo erregimen ekonomikoa eta tronkalitatea (Bizkaiko eremu batzuetan).

**Seniparte bakarria ezartzen du lege berriak, ondarearen heren batena, Euskal Autonomia Erkidego osorako, salbuespena Aiarako harana izanik.**

Hori dugu, hain justu, legearen berrikuntza sakonenetako bat. Orain arte, Foru Zuzenbide Zibilak ondasuntzaren lau bostenerainoko senipartea diseinatzeko aukera handiagoa eskaintzea, gaurko egunean jendeak prestakuntza eta irizpide handiagoa baitauka. Erreforma koherentea izan da ideia horrekin, eta hiru norabide irekitzen ditu II. tituluko II. kapituluan, berriro esan, EAEko lurralde osoan aplikagarriak:

- Senipartedunak ondorengoetara mugatzen dira (gradu-mugarik gabe), bazter utziz aurrekoak.
- Jarauntsiaren herenera mugatzen da nahitaezko gehieneko zenbatekoa.
- Testamentugileak bere ondorengoan artean gutxienez horietako bat hautatu dezake. Eta hori batera arrazoirik adierazi gabe eta Kode Zibileko jaraungabetze-arrazoiak jo beharrik gabe. Testamentuan aipatuta agertzen ez dena baztertutzat jotzen da gainerako seme-alaben eta iloben alde (edo horietako bakar baten alde).

Alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak eskubidea du, berriz, «alargun-gozamen» deiturikora: erdia, aurrekoekin lehiatzen bada; edo bi herenak, bestela.

**Oinordetzak ere arautzen ditu lege berriak, baina Bizkaiko eta Aiarako berezitasunak gordez. Zer dela eta?**

Lurralde-salbuespena Aiarako haranarekin egiten da, hau da, Araia, Amurrio eta Okondoko udalerriekin; eta Mendieta, Erretes Tudela, Santa Koloma eta Soxogutiko auzoekin, azken horiek denak Artziniegako udalerrikoak. Toki horietan, bitxitasun historiko eta paradoxikoki ultramoderno bati eusten zaio: testamentua egiteko erabateko askatasuna, zeinak dakarren askatasun osoz baztertu daitezkeela senipartedunak «gehiagorekin edo gutxiagorekin», 89. artikuluan xedatzen denez, eta nahi den pertsona izendatu daitekeela jaraunsele.

**Bestetik, hilburuko testamentua hiru lurralde historikoetara zabaldu da.**

Bai, testamentu hori pentsatuta dago heriotza-arriskua dagoenean testamentua egin ahal izateko hiru lekukoren aurrean, notarioak esku hartu gabe. Testamentu-mota horrek erro oso sakonak bota ditu Bizkaiko Forutik aurrera (1526), eta bertan egindako erregulazio zuzenak eta bermeek aholkatu dute lurralde osora hedatzea. Adibide paradigmaticoa bat da ikusteko euskal instituzio zibilek zer-nolako gaitasuna duten gaur egunera moldatzeko.

**Bizkaiko Iur Iauan, eta Arabako Aramaio eta Audio udalerrietan hain erro-tuta dagoen tronkalitatea bizirik mantentzen du legeak.**

Tronkalitatea Bizkaiko Zuzenbidearen ezaugarrietako bat da, adarrak izan zituen Nafarroan eta baita Lapurdiko ohituretan ere; eta, hain zuzen, erregulazio nahiko ondua dauka 1992ko Legean. Egia da, hala ere, tronkalitatearen xedapenek oinordetza antolatzerakoan ezartzen dituzten mugapen-obligazioak, nolabait, arlo honetan gehiagora doan askatasunaren kontrakoak direla.

Legeak tronkalitatea mantendu egiten du aplikatzen den eremuan, indarrean dagoen erregulazioa jasoz eta gehiegikeriaren bat edo beste samurtuz. Hala,

tronkalitatea aplikatzeak zekarren deuseztasun erabatekoa deuseztasun mugatu bihurtzen da, Jabetza Erregistroan inskribatu ondoko lau urteko epean egikaritu beharrekoa.

**Ezkontzako ondasunen araubidea jasotzen du legearen hirugarren titulua. Zeintzuk dira aldaketak?**

Askatasun zibilaren printzipioaren adierazpen gisa, berriro ere, titulu horretan aukera askako sistema bat ezartzen da, ezkontza egin aurretik zein ondoren. Ezkontideek esanbidezko aukerarekin egin ez baldin badute ordezko irizpide gisa, Kode Zibilaren irabazpidezko sistema aplikatzen da. Eta Bizkaiko foru-lurraldean, ulertuko da ordezkatasun hori foru-komunikazioari buruzko araubideari dagokiola.

**Euskal tradizioa ere gordetzen du lege berriak, esate baterako, Gipuzkoako baserrien oinordetzkari dagokionez, ez da hala?**

Jakina. Babestu egiten da Gipuzkoako baserriaren oinordetza-preserbazio tradizionala gordetzea, ondazilegiak barruan sartuta, 96.-99. artikuluen arabera.

**Kofradia, ermandade eta mutualitateen arauketa ere badakar.**

Erakunde horiek gure artean oso finkatuta dagoen elkartze-espirtuaren adibide dira. 16. artikulua errekonozimendu normatiboa ematen die elkarte horiei, Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 21. eta 23. apartatuetan oinarrituta. Eusko Jaurlaritzak arlo honetako erregistro bat sortuko du, non zerrendatuko diren 5/2015 Legearen eremuan sartzen diren sozietate horiek.

**Zalantzak argitze aldera, zer geratzen da urriaren 3a baino lehenago egindako testamentuekin?**

Data horren aurretik egindako testamentuek zilegitasun osoa mantentzen dute.

Alabaina, askatasun zibil handiagoa erabili nahi izanez gero, gomendatuko nieke guztiei jar daitezela harremanetan abokatu eta notarioekin, informazio zehatza jasotzeko eta, kasua bada, aurretiazko dokumentuak aldatzeko.

**Bestetik, agiri publikoak euskara hutsez egin daitezkeela dio lege berriak, murrizketarik gabe.**

Hala da, 7. artikulua arabera «EAEko hizkuntza ofizialetatik edozeinetan formalizatu ahal izango dira lege honek araututako egintzak eta kontratuak».

**Zuzenbide Zibilaren Batzorde aholku-emailea ere eratu da. Zein izango da haren egitekoa?**

Funtsezko organo bat da, Eusko Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari aholku emateko sortua. Batzordekideei ez zaie ordainduko, eta batzordearen eginkizuna izango da motore bihurtzea legearen betetze-maila ebaluatzeko, adituen ikerketa-ahaleginak koordinatzeko eta Euskal Zuzenbide Zibilaren garapeneko testuak proposatzeko. Batzordearen osaera eta funtzio-zehaztapena Eusko Jaurlaritzak garatuko ditu dekretu bidez. ■

## URRATS HISTORIKOA

Eusko Legebiltzarrak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak antolatuta, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko jardunaldiak egin zituzten azaroaren 2an eta 3an Bilbon, eta 240 lagunek parte hartu zuten, gehienak lege hau aplikatu behar duten abokatuak. Josu Osés Eusko Legebiltzarreko legelariak azaldu duenez, hizlari «guztiek adierazi zuten 5/2015 Legea urrats historikoa dela, benetan, Foru Zuzenbide Zibil zahar eta zatitua kontserbatze eta aldatzetik harago joateko. Hitz gutxitan esateko, XXI. mendeko Euskal Zuzenbide Zibilaren sorrera da».

Jardunaldiotan, gainera, «legegintza-politika etengabea eta jarraitua ezartzen da legearen etorkizuneko erreformetarako, bai bertan jada erregulatuta dauden alderdi batzuk garatze aldera, bai oraindik sartu gabe dauden beste puntu batzuk arautze aldera ere». Osésen arabera, «lan hori gizarte zibilaren eta instituzioen arteko lankidetzaren bitartez eraman behar da aurrera», eta, «alde horretatik, Zuzenbide Zibilaren Batzordeak funtsezko paper bat» jokatu duela deritzo.

Beste alde batetik, informazio lanak jarraipena izango duela aurreratu du Osés: «Datorren urteko lehen hiruhilabetekoaren barruan jardunaldi tekniko batzuk antolatuko dira hiru hiriburuetan, batez ere, legelari zuzenduak, formatu mugatuagoa eta espezializatuagoa izango dutenak».